

Futbola ♦ Teorian, Athleticek oso ondo egin du Freedman marketin profesionala fitxatzen

Nola aberastu

Edward Freedmanen aholkuak jarraituz, Manchester United munduko klubik dirudunena izatera iritsi da

Naxari Altuna / Donostia

EDWARD FREEDMAN da Athleticen lehen fitxaketa datorren denboraldirako. Fitxaketa hori klubaren arlo ekonomikoari dagokio; salmenta sailari. Izan ere, Freedman Athleticen irudia saltzera etorriko da: klubari diru-iturri berriak zabaltzera.

Ingelesek asmatu zuten futbola, eta haiek murgildu dira, inor baino lehen, *merchandising* deritzoten negozioan. Klubaren produktuen salmentarekin dirua irabaztea da, azken finean, negozio hori. Baina nor da Edward Freedman? Ingelesa da, 57 urte ditu eta azken boladan Manchester United klubarekin aritu da lanean. Aurretik Tottenham Hotspurs-en ere izan zen (1985-1991). Tottenham 1983an sartu zen burtsan (aitzindaria Ingalaterran), eta Freedman bi urte geroago iritsi zen hara. Handik, esan bezala, Manchesterre joan zen.

Midas erregea

Ingalaterrako futbola infernuan murgildurik zegoen 1985az geroztik. Heyseleko hondamendiak jarraipena izan zuen lau urte geroago Sheffielden. Sei urtez Europatik kanpo geratu ziren orduan Liverpool, Manchester Uunited, Tottenham eta Ingalaterrako gainerako taldeak. Dena galduta zirudien. Baina hondamendiak berrikuntzei utzi zien lekua: zigorrak hausnarketa eragin zuen.



Manchester Uniteden estadioa: Old Trafford.

Orduantxe sortu ziren futbol modernoaren oinarriak. Zutikako harmailak desagertzen hasi ziren, estadioak eraberritzen, eta horrekin batera klubak euren irudi berria saltzen hasi ziren: irudi freskoa eta erakargarriagoa. Manchester United, esaterako, 1991ko maiatzean sartu zen Londresko Burtsan, Freedman klubera *merchandising*-a lantzera iritsita. Hasieran, Manchesterren akzioek oso harrera txarra izan zuten, eta lehengo hilabeteen akzioen balioak %18 egin zuen behera. Urteen poderioz, ordea, egoera zeharo aldatu da: gaur egun Manchester United da Londresko Burtsako izar

nagusia, eta akzioen balioak izugarri egin du gora (hasieran ordaindu zenaren halako zortzi).

Arrakastaren motoreak baditu zenbait arrazoi: Manchester United, Edwards familiaren eskuetan izan da azken 40 urteotan, taldeak entrenatzaile bera izan du 1986az geroztik (Alex Ferguson), harrobiak emaitza bikainak eman ditu (Beckham, Scholes, Butt, Neville anaiak...), eta prozesu honetan elementu erabakigarri bat azaldu zen: Eric Cantona aurrelari frantziarra. Cantonarekin Manchester United taldea garaile bihurtu zen, eta horrek bultzatu zituen merkatuko salmentak. Horri

guztiari etekin ezin hobea ateratu zion Freedmanek.

Kanpaina Freedmanen eskuetan

Manchester unerik egokien iritsi zen gailurrera, 1990eko hamarkadaren hasieran futbolaren *boom*-a izan baitzen Ingalaterran, eta orduan erakuslehoaren erdi-erdian zegoen Old Traffordeko kluba. Azterketa sakon bat egin ondoren, Erresuma Batuan bi milioi eta erdi bezero potentzial zituztela ohartu ziren; produktua, beraz, merkatuan ipini behar zen, ahalik eta gehien saltzeko. Freedmanek antolatu zuen kanpainia

Manchester,
Freedmanek utzi
zuenean

■ **Klubaren balioa merkatuan** • 100.000 milioi pe-
zeta.

■ **Klubaren irabaziak 1996-97an** • 22.000 milioi pe-
zeta.

■ **Klubaren aurrekontua 1996-97an** • 18.250 mi-
lio pezeta.

■ **Saldutako elastikoak 1996-97an** • 900.000.

■ **Irabaziak 1996-97an** • 3.750 milioi pezeta. Diru iturriak: %34 sarrerren salmentatik (7.525 milioi pezeta), %33 *merchandising* delakotik (7.175 milioi pezeta), %14 telebista eskubideetatik (3.150 milioi pezeta), %13 babesleetatik eta publizitatetik (2.775 milioi pezeta), %6 klubak antolatutako ekitaldi berezietatik (1.375 milioi pezeta).

■ **Ikusle kopurua** • 54.300 ikusle partiduko (gehienetan beteta). Sarrerarik merkeena 3.675 pezeta; eta bazkide txartelik merkeena 60.500 pezeta urteko (35.000 bazkide guztira). 1990ean sarrerarik merkeena 950 pezetakoa zen.

■ **Irabazien bilakaera** • 1993an: 395 milioi pezeta. 1994an: 532 milioi pezeta. 1995ean: 1.870 milioi pezeta. 1996an: bi milioi pezeta. 1997an: 3.750 milioi pezeta.

hura, eta emaitzak ikusgarriak izan ziren: 1993an Manchesterrek 375 milioi pezetako irabazia izan zuen, eta 1997an (Freedmanen azken urtean) 3.750 milioi-koa. *Merchandising*-ak zerikusi handia izan zuen.

123 marketin langile

■ MANCHESTER enpresan 420 pertsona ari dira lanean. Haie-tatik 123 *merchandising* edo arlo komertzialean. Eskariaren igoerak 74 langile berri hartzera behartu zuen kluba 96-97an. 22 langile ari dira telefono deiak jasotzen. Old Trafford estadioan 250 metro koadroko denda bat dago, eta klubaren ikurra duten 1.500 produktu aurki daitezke: elastikoak, txapelak, oinetakoak, etxeko tresnak... Partidu egunetan denda jendez gainezka izaten da.

Asian partiduak

■ ATZERRIAN ere hainbat bezero aurkitzen dituzte Manchester United klubekoek, negozioa zabaltzeko asmoarekin betiere. Batez ere Asia aldean bilatzen dute. Taldea maiz joaten da hara partiduak jokatzera, klubaren irudia zabaltzeko aukera ona baita. Eta han ere elastikoa ugari saltzen du. Gorria da taldearen elastiko ofiziala, baina ordezkioak ia urtero aldatzen dituzte. Hala, modelo berriekin jarraitzailerik sutsuenak harra-patzen dituzte.

Telebista katea

■ INGALATERRAKO futbolak oro har jarraitzaile anitz ditu munduan zehar, ikus-entzunezkoen arloan ere aitzindariak direlako (kontratu itzela sinatu dute BSkyB telebista kate pribatuarekin). Manchester Unitedek kontuan hartzen du hori guztia, eta iaz futbol klub baten inguruko lehendabiziko telebista katea abian jarri zuen (MUTV). Orain, lehen aipaturiko BSkyB kateak kluba erosi nahi du, baina horrek ika-mika sortu du Ingalaterran.

Old Trafford handitu

■ MANCHESTER UNITED da munduko futbol klubik aberatsena, eta horrek, besteak beste, futbol zelaia eraberritzeko aukera eman dio. Hala, Old Trafford 41.000 ikusleko kopurutik 55.000era igaro da obren ondoren. Estadioan, partiduez gain, beste gauza batzuk ere izaten dira: hitzaldiak antolatzen dituzte aretoetan, Red Cafe delakoan garagardo bat har daiteke, museoa ikusi, ezkontzak ere egiten dira, ospakizun bereziak, eta abar.